



AGENDA LOCAL 21 DE MUSKIZ
MUSKIZKO TOKIKO AGENDA 21.

Dokumentuaren izenburua:	MUSKIZKO TOKIKO AGENDA 21. 1 dokumentua. Diagnostiko laburtua
Laguntza teknikoa:	Maidier Etxaide. Haizea Ikerketa S.L Onintza Andrés. Haizea Ikerketa S.L Leire Sarobe. Haizea Ikerketa S.L
Hartzailea:	Muskizko Udala
Udal koordinazioa:	Alkatetza. Borja Liaño Ingurumen saila. Unai Landaburu Tokiko Agenda 21eko koordinatzaile teknikoa. Ana Carcelen
Orrialdeak:	46
Hizkuntza:	Euskara
Emate data:	2012ko otsaila

AURKIBIDEA

SARRERA	2
<i>Aurrerakariak eta testuingurua</i>	2
<i>Helburuak</i>	2
<i>Lanerako programa</i>	2
<i>Dokumentuaren egitura</i>	2
DIAGNOSTIKOAREN EMAITZAK GAIKAKO EREMUKA	2
EBALUAZIO OROKORRA ETA LEHENTASUNEZ ESKU HARTZEA ESKATZEN DUTEN EREMUAK	2

LABURPEN EXEKUTIBOA

Bere Tokiko Agenda 21en berrikuspenaren esparruan, Muskizko Udalak, 2011ko azaroa eta 2012ko otsaila artean **diagnostiko txosten** hau egin du, **zeinak** hurrengo fasean burutuko den **Tokiko Ekintza Plan 21en oinarriak ezartzen baititu**.

Udal kudeaketan eta udalerriko bizitzan eragina duten lurralde, sentikortze, partaidetza zein koordinazio, ekonomia eta gizarteari buruzko arlo tematikoen identifikazio, bilketa eta analisiak Muskizek aurrez aurre dituen **erronkak hautematea ahalbidetu du eta, halaber, datozen urteei begirako lehentasunezko eskuhartze helburuak**, iraunkortasun klabea **ezartzea posible egin du**.

Erauzitako ondorio nagusiak jarraian adierazi bezala laburbiltzen dira:

LURRALDEARI LOTUTAKO ALDERDIAK

- Hirigintza plangintza, 1993an onartutako AASek arautzen dutena, guztiz zaharkitua gelditu da. Ikuspegi zabal eta koherente batetik aurreikusten da HAPN berria idatzi eta onartzea.
- Muskizek biztanle sakabanaketa nabarmena ageri du.
- N-634 eta BI-2701 errepideek hiri ehuna eta tokiko irisgarritasuna baldintzatzen dituzte. Horregatik beharrezkoa da trafiko intentsitate handiko bideen berrantolaketa.
- Herriko bideetan arrisku altuko istripu tasako tarte eta puntuak identifikatzen dira.
- Inguruko udalerrien artean, hainbeste naturgune aberats eta anitz biltzen duen bakarrenetarikoa da.
- Balio garrantzitsuak oraindik kontserbatzen dituzten hainbat natur gune daude nahiz eta udal lurraldearen gizakiaren aldetik jasan duen presioa jarraitua eta handi izan.
- Gune desberdinen ingurumen berreskurapenaren aldeko esku hartze ugari egin dira.

BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMENAREN KALITATEA

- Beharrezkoa da hondakinen frakzio berreskuragarri eta birziklagarrien bilketa gehitzeko lanean jarraitzea.
- Udalerrian energia alternatibo eta berriztagarriak sormen eta banaketari lotutako proiektu eta instalazioak daude, jarraitu beharreko lan larroa.
- Energia aurrezteko jarduerak definitzea komenigarria dela uste da
- Plan berriak zarata eta aire kalitatearen kudeaketari helduko dio.
- Ez dago eguneratutako tresnarik arriskuaren kudeaketarako. Baliabide konkretuen bitartez emango zaio irtenbidea.
- Erosketa eta kontratazio publikoan ingurumen dimentsioa barneratzea eta tokiko administrazioaren ingurumen kudeaketa gutxi landutako arloak izan dira gaur arte.
- Ekimen desberdinak burutu dira klima aldaketaren aurkako borrokari edo Berotegi Eftuko Gasen (BEG) isurpen konpentsazioei egiten zaion ekarpenari lotuta.

HEZKUNTZA, HERRITARREN PARTAIDETZA ETA BARNEKO KOORDINAZIOA

- Ahaleginak egiten ari dira komunikazio kanalak garai berrietara egokitzeko.
- Tokiko Ekintza Planaren kudeaketa aktiboa egitea aurreikusita dago.

GIZARTEAREN ETA EKONOMIAREN GARAPENA

- Estrategikotzat jotzen da ekonomi jardueren bultzadarekin eta enplegu politiken indartzearekin aurrera jarraitzea.
- Pobreziari loturiko arazo eta beharrak azken urteetan indar handiagoaz ageri dira egungo ekonomi krisia dela eta.
- Gizarte zerbitzu eta ekipamenduak hazten eta anizten joan dira azken urteetan. Hala ere, zenbait arlotan oraindik lanean jarraitu beharra dago ongizatea hobetzeko eta gizarteratzea bultzatzeko.
- Osasun zerbitzuak biztanleriaren beharretara egokitu behar direla uste da.
- Euskararen erabilera hezkuntza esparrura, eta hein txikiago batean kultur esparrura mugatuta gelditu da.
- Kultur eta kirol izaerako ekipamenduen zuzkidura nahiz jardueren programazioa Muskizen indargune dira.
- Udal plangintza berriak etxebizitzari inguruan hartu beharreko erabakien gaiei helduko dio.

SARRERA

Aurrerakariak eta testuingurua

Muskizko udalak duela urteak ekin zion garapen iraunkorrera bultzatzeko bideari.

2002ko uztailean **Udaltalde 21 Enkarterri** taldearen erakuntza hitzarmena sinatzen du Alonsotegi, Artzentales, Balmaseda, Gordexola, Gueñes, Lanestosa, Sopuerta, **Trucios-Turtzioz** eta Zierbenako udalerriekin batera **Tokiko Agenda 21en ezarpen prozesuari** hasiera emateko.

Horrela, 2002ko azaroa eta 2003ko martxoaren bitartean, Udaltalde 21 Enkarterri proiektuaren esparruan, Muskizek bere lehen gizarte eta ingurumeneko diagnostikoa taxutzen du. **Lehen Tokiko 21 Ekintza Plana**, 58 ekintza, 11 ildo estrategikotan eta 29 programetan banatuta dituena, osoko bilkuran onartzen da 2004ko abenduaren 27an, 4 urteko exekuzio horizontearekin. 2005ean Muskiz Udalsarea 21era atxikitzen da, hots, Iraunkortasunaren aldeko udalerrien euskal Sarera.

Ekintza Planaren urteroko ebaluazioa egiteak bere Planeko ekintzen betetze maila ezagutzeko aukera ematen dio Muskizi. 2005-2010 urtealdian, bere garaian definitutako helburu estrategikoen lorpenari begira formulatutako ekintzetako batzuk gauzatu ditu, Ekintza Planaren %67ko ezarpena lortuz.

2011ko urrian Muskizek duela urteak egin zuen apustua berritzen du eta erabaki honekin tokiko garapen iraunkorra den eredu baterantz eta Aalborg + 10 Konpromisoerik ekarpena eginez **aurrera jarraitzeko konpromisoa berresten du.**

EAEko Ingurumen Esparru 2002-2020 Programak, non garapen iraunkorreko euskal ingurumen estrategia jasotzen den, besteak beste, 10.000tik gorako udaletxeek **ingurumen teknikari** bat izan dezatela xedatzen du eta 2012 urterako 5.000 biztanletik gorakoek baita ere, bakarka nahiz era mankomunatuan. Muskizek, 7.610 biztanle dituelarik, helburu hau soberan betetzen du.

Txosten honen edukiak **"Muskizko gizarte eta ingurumen diagnostikoaren idazketan"** eginiko lana islatu eta jasotzen du. Diagnostiko hau udalerraren Ekintza Plan-Tokiko Agenda 21en berrikuspenaren lehen fasean (1. Fasea: Diagnostiko Sintetiko) kokatzen da eta 2011ko azaroa-2012ko otsaila epealdian burutu da.

"Muskizko gizarte eta ingurumen diagnostikoaren idazketa", Udalsareak 2011 urtean argitaratu zuen **EAEko udalerrietako Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planak Berrikusteko Gida Metodologikoan ezarritako gidalerroek** diotenari hertsiki jarraikiz egin da. Diagnostikoak iraunkortasunaren 3 dimentsioak baitaritzen ditu (ingurumena, ekonomia eta gizartea).

Diagnostiko hau Muskizko udaleko **alkatetzak eta Ingurumen sailetik lideraturik** eta **Haizea Ikerketa S.L** aholkularitzaren elkarlanaz burutu da. Horrez gain, **Udalsarea 21**eko idazkaritza teknikoak kudeatzen duen lhoberen bitartez, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Departamentuaren laguntza jaso du. Lan hau posible izan da Muskizeko udaleko hala politikari nola teknikarien eta baita ere **herritarren, elkarteen, eta gizarte entitate** zein **eragileen**, inplikazio eta partaidetza zuzenari esker.

Helburuak

Diagnostiko honetan **bilatzen diren helburuak** ondokoak dira:

1. Udalerriaren lurralde, ingurumen, komunikazio, partaidetza, gizarte zein ekonomiari lotutako arlo multzoaren analisia egitea eta ondoren baloratzea.
2. Balorazio horretatik abiatuta Ekintza Plan berriaren lehentasuneko eskuhartze arloak zein diren erabaki.
3. Oraindik indarrean dauden eta garrantzitsuak diren aurreko Planeko ekintzak identifikatu.
4. Aztertutako arloekin zerikusia duten eta Plan berrian barneragarriak diren udalarenak eta udal gaitetakoak diren plan eta programak identifikatu.
5. Planaren formulazioari begira, helburu estrategikoak definitu.
6. Intereseko gizarte eta ekonomi munduko aktoreen eta, oro har, herritarren ikuspuntua barneratu.
7. Arloetan eskuduntza duten udaleko teknikari eta politikarien baliozkotzea bermatu.

Ondoriozko **Ekintza Planak**:

1. 2012-2020 urteei begirako Muskizko ekintza iraunkorraren konpromisoa definitu eta zehaztu egingo du.
2. Muskizko datoen 8 urteei begirako estrategia irudikatuko du.
3. Herri bezala datoen 8 urteetan landu beharreko erronka eta ekintza nagusiak zehaztuko ditu.

Lanerako programa

Lan programa **3 fase nagusitan** banandu da:

1. Proiektua abiarazteko egin beharreko definizio eta martxan jartzeko lanak, hau da, prozesua aurkezteko bilera eta jardunaldiak ospatzea eta udal barneko zein udalaz kanpoko (herritarrak eta gizarte zein ekonomi eragileak) koordinazio eta partaidetza mekanismoak TA21en berrikuspenaren beharretara egokitzea.
2. Informazioaren bilketa eta integrazioa: tokikoa eta udalaz gaindikoa den informazioa bildu nahiz integratzea eta aztertzen diren gai arloetako arduradun diren teknikariekin eta interesa agertzen duten politikariekin elkarrizketak egitea.
3. Txostena idaztea: Diagnostiko Laburtua.

Agenda 21, kontzeptu zein filosofiagatik, berau osatu eta zehaztuko duen **Udaleko teknikari eta politikariak biltzen dituen barne partaidetza prozesu batez zein herritarren sektore multzo osoaren kanpo partaidetzaz** lagunduta joan behar du.

Kalitatezko herritarren partaidetza bermatzeko **komunikazio estrategia** batez lagunduta egon behar du. Estrategia honek informazio euskarri eta motibaziorako tresna izan behar du. Helburu horrekin, prozesuan gako diren uneetan **udalak ohiki erabiltzen dituen komunikazio kanalak eta gizarte sareak** (Twitter) erabili dira.

Muskizeko Gizarte eta Ingurumen Diagnostikoa egituratu ahala aipatutako 3 faseetan zehar **barne zein kanpo partaidetza barneratu eta artikulatu dira** eta jasotako ekarpenak ondoriozko txostenean baitaratu Eranskin gisa.

Atxikita doan koadroan prozesuan zehar **garatutako partaidetza jarduerak** xehetasun handiagoz azaltzen dira.

MEKANISMOA	HELBURUAK	LOTUTAKO KOMUNIKAZIOA
BARNEKO PARTAIDETZA		
1.go barneko lan saioa (2011-11-21)	<p>Helburu bezala dauka eragile tekniko zein politikoei prozesua aurkeztea.</p> <p>Azalpeneko saioa da Udaletxeko langile eta politikariek prozesuaren aurrean dauzkaten zalantzei eta jakingurari erantzuteko erabiltzen dena. Halaber, eragile bakoitzak burutu beharreko lanen eta hauek burutuko diren uneen berri ematen da era zehatzean.</p> <p>Era honetara, eragile oro behar bezala informatuta dagoela bermatzen da eta euren agendak ustekaberik gabe programatzeko aukera ematen da.</p>	<p>Prozesuan partaide diren Udal eremu guztiei deialdia posta elektronikoz.</p> <p>Erantsitako dokumentua: gai-zerrenda..</p>
Partaide diren teknikoei elkarrizketak	<p>Elkarrizketa teknikoei, inplikaturako udal eta eskualdeko sail guztietan eginak, Muskizen errealitate sozial, ekonomiko eta ingurumenekoaren ikuspegi sakonagoa lortzea bilatzen dute.</p> <p>Funtsean, izaera kualitatiboa duen informazioa eskuratzen ahalbidetzen dute.</p>	<p>Muskizeko Udalean Tokiko Agenda 21 koordinatzaile teknikoaren bitartez deituak.</p>
Interesa duten politikoei elkarrizketak	<p>Politikoei egindako elkarrizketek beraien iritzia xehetasunez jasotzea bilatzen dute.</p> <p>Emandako iritzia Barne eta Kanpo Partaidetzaren inguruko Eranskina dokumentuan jaso dira.</p>	<p>Muskizeko Udalean Tokiko Agenda 21 koordinatzaile teknikoaren bitartez deituak</p>
2. barneko lan saioa (2012-02-20)	<p>Bere helburua da diagnostikoaren edukiak baliozkotzea bai eta Tokiko Ekintza Plan 21 berriaren oinarria eratuko duten lehentasuneko arloak adostea.</p>	<p>Prozesuan partaide diren Udal eremu guztiei deialdia posta elektronikoz.</p> <p>Erantsitako dokumentua: gai-zerrenda..</p>

MEKANISMOA	HELBURUAK	LOTUTAKO KOMUNIKAZIOA
KANPOKO PARTAIDETZA		
Herritarren hautemate mailaren galdetegia (on line eta paperean)	Diagnostikoan aztertuko diren gaikako arloen inguruko galdetegi sinplifikatua, interesa duen ororen esku ipintzen dena. Emandako iritziak Barne eta Kanpo Partaidetzaren inguruko Eranskina dokumentuan jaso dira.	Udal web orrian berria. Udalerriko iragarki-tauletan berri ematea. Paperezko galdetegiak Udaletxean (buzoi berdea), Gaztegunean eta Kultur etxean egon dira eskuragarri.
Herritarren 1. foroa (2011-12-13)	Prozesuaren aurkezpena egitea eta Diagnostikorako gaikako arloen eta intereseko gaien inguruko eztabaida egitea bilatzen duen gunea. Emandako iritziak Barne eta Kanpo Partaidetzaren inguruko Eranskina dokumentuan jaso dira.	Udal web orrian berria. Udalerriko iragarki-tauletan berri ematea. Merkataritza, enpresa eta ostalaritzari zuzendutako idatzizko deialdia. Elkarteei zuzendutako idatzizko deialdia

Dokumentuaren egitura

"1. Dokumentua. Sintesi Diagnostikoa" txosten honek diagnostikatu beharreko gizarte, ekonomi eta ingurumen gaiak **gaikako 4 bloketan taldekatutako 17 gaikako arlotan** banatzen ditu:

LURRALDEARI LOTUTAKO ALDERDIAK

1. Lurraldea eta plangintza
2. Mugikortasuna eta garraioa
- 3.. Bioaniztasuna eta paisaia

BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMENAREN KALITATEA

4. Ura
5. Hondakinak
6. Energia
7. Ingurumenaren kalitatea (atmosfera, akustika eta lurzorua)
8. Arriskuen eta jarduera ekonomikoen kudeaketa
9. Udal administrazioaren erosketak publikoak eta ingurumen kudeaketa
10. Klima aldaketa eta inpaktu globala

HEZKUNTZA, HERRITARREN PARTAIDETZA ETA BARNEKO KOORDINAZIOA

11. Komunikazioa, sentsibilizazioa eta herriarren parte-hartzea
12. Barne koordinazioa eta transbertsalitatea

GIZARTEAREN ETA EKONOMIAREN GARAPENA

13. Biztanleria
14. Garapen ekonomikoa eta lan merkatua
 - Jarduera ekonomikoaren egitura eta maila
 - 2. sektorea
 - Zerbitzuen sektorea
 - Turismoaren eta ostalaritzaren sektorea
 - Enplegua eta lan merkatua
15. Ongizatea eta gizarteratzea
 - Ekitatea eta gizarte zerbitzuak
 - Berdintasuna
 - Bizikidetzak
 - Osasuna eta osasun zerbitzuak
 - Telekomunikazioak eta IKTetara irismena
16. Hezkuntza, euskara, kultura eta kirola
17. Etxebizitza

DIAGNOSTIKOAREN EMAITZAK GAIKAKO EREMUKA

Udalerriko gizarte, ekonomia eta ingurumen egoeraren Diagnostikoa Udalsarea 21ek ezarritako ereduari jarraiki egituratzen den **eremukako fitxetan** aurkezten da. Fitxa hauek diagnostikatu nahi diren 17 eremukako gai garatzen dituzte.







Gaztelerazko bertsioan dago bakarrik gaikako eremuei jarriki osatu den Diagnostikoa.




EBALUAZIO OROKORRA ETA LEHENTASUNEZ ESKU HARTZEA ESKATZEN DUTEN EREMUAK

Jarraian **gaikako eremuka udalerraren ebaluazio globala jaso eta esku hartzeko lehentasun eremuak identifikatzen** dituen laburpena aurkezten da.









LURRALDEARI LOTUTAKO ALDERDIAK





1. TERRITORIO Y PLANEAMIENTO

Azpi-eremua	Egoera	Diagnostikoko funtsezko alderdiak	Esku hartzeko lehenetsun eremuak
1.1. Lurralde eremua		<ul style="list-style-type: none"> • Ekonomi jarduerak dira hiri lurzorua eta lurzoru hiritargariaren zati handiena hartzen dutenak. Etxebizitza lurzorua pisu erlatiboa Meatze Eremuko baxuena da. 	<p>Udalaren eskumenekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Udal planeamendua berrikusi eta Muskizko Hiri Antolamenduaren Plan Orokor berria idatzi eta onartu, ikuspuntu globaleko eta koherenteago batetik landuta.. • Hiri Antolamenduaren Plan Orokor berria Kultur Ondarea osatzen duten edo babes erregimen bereziaren pean dauden ondasunak jasotzen dituen Katalogoa sartu. Bertan jasoko dira dauzkaten kultur balio bereziak direla eta, udalerrri mailako irizpidearekin eta ordezkatzan dituzten balioak hobe kontserbatzearen, babes berezia eman behar zaiela uste diren ondasun haiek ere. • Hiri planeamenduan iraunkortasun irizpideak txertatu (dentsitateak, erabileren dibertsifikazioa, ingurumen eraginak, etab.) • Trafiko dentsitate handiak dauzkaten hiri bilbeko bideak berrantolatu irisgarritasuna eta ibilgailu fluxua hobetzearen. • Behin betiko konponbidea bilatu hiri bilbearen baitako bideak jasaten duten trafikoa arintzeko helburuz. • Behar gorritan dauden auzoguneetan hirigintza-eraberritzeak exekutatu. • Biztanleriaren sakabanaketaren arazoak konpondu.
1.2. Udal lurzorua egitura organikoa eta erabilerak		<ul style="list-style-type: none"> • Haranen honoan eta itsasertzeko eremuan lurraldearen eraldaketa sakona eta lurzoru artifizializazioa jasan dute. • N-634 eta BI-2701 errepideek hiri bilbea eta tokiko irisgarritasuna baldintzatzen dute. 	
1.3. Hiri egitura eta ehundura		<ul style="list-style-type: none"> • Hiri multzoaren biztanle dentsitatea Lurralde Historikoak duen batez bestekoaren antzerakoa da. • Institutuzio, hezkuntza, merkataritza eta zerbitzuen jardura handiena San Juan, La Cendeja eta El Cruceko hiri guneek eratzen duten hiri bilbean kontzentratuta dago. 	
1.4. Hiriko eta hiri inguruetako berdeguneak		<ul style="list-style-type: none"> • Hiriko parke, lorategi eta gune berdeen portzentajea Lurralde Historikoak duen batez bestekoaren azpitik dago (%9,62 %13,27ren aldean) 	
1.5. Hiri paisaia eta gune hondatuak		<ul style="list-style-type: none"> • Hala eta guztiz ere, Muskizko Udalak uste du hiriko gune berdeen zuzkidura handia dela. • Badira hiri eremuak gune berde espezifikorik ez dutenak. 	
1.6. Ondare arkitektonikoa eta kulturala		<ul style="list-style-type: none"> • Hiri inguruko eremu landatarrak okupazio masiboa jasan du eta batzuetan paisaia desnaturalizatuak edo zabarkerian eroritakoak sortu ditu. • Zenbait herri taldek CLHren tankeen eraistea gaizki egin dela 	






Azpiemua	Egoera	Diagnostikoko funtsezko alderdiak	Esku hartzeko lehentasun eremuak
1.7. Lurralde eta sektore antolamendua		<p>uste dute.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Muskizko AASen Katalogoak ez du jasotzen ditun eraikinen babes maila bereizten. • Hiri planeamendua, 1993an onartutako AASek arautzen dutena, erabat zaharkitua geratu da. 	<ul style="list-style-type: none"> • Jolas eta aisiarako eremu erakargarriez hornitu udalerrria dauden beharren mailara iritsiz eta onargarriak diren erabilerak natur inguruarekin bateragarri eginez. • Udalerraren hiri eta hiri inguruaren irudia hobetu, Muskizi "fatxada" berria eskainiz.
1.8. Hiri antolamendua		<ul style="list-style-type: none"> • Indarrean dagoen udal planeamenduak ez du berriazko iraunkortasun irizpiderik barne hartzen, ez antolamenduari eta lurraldearen arautzean dagokionean ez eta eraikitzeari dagokionean ere. 	
1.9. Antolamenduan eta eraikuntzan iraunkortasun irizpideak sartzea			

2. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA

Azpiemua	Egoera	Diagnostikoko funtsezko alderdiak	Esku hartzeko lehentasun eremuak
2.1. Ohiko mugikortasun beharraren ezaugarriak		<ul style="list-style-type: none"> 2008an Hiriaren Mugikortasun Plan Iraunkorra idatzi zen. Plan honetako ekintzen ezarpen maila ez da iritsi espero zen puntura. 	<p>Udalaren eskumenekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> Hiriaren Mugikortasun Plan Iraunkorra berrikusi. Irisgarritasun Planean aurreikusitako jarduerak garatu. Hirigunea egituratuko duten eta intereseko zein jende erakarle diren zentroak elkarren artean lotuko dituzten bizikleta ibilbideak diseinatu. Foru Aldundiarekin batera irtenbideak bilatu hirigunean zuzenean sartzen diren bideetatik trafiko astuna eta pasukoa desbideratzeko. Bizikleta erabiltzaileak jasotzeko beharrezko azpiegiturak eduki. Bide hezkuntzako ekintzak bultzatu burutzen diren mugikortasun arloko jarduerak garatu ahala. Bide hezkuntzari eta mugikortasunean jardunbide egokiak sustatzeari ekin. <p>Udalaz gaineko eskumenekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> Herri arteko garraio publikoko eskaintza hobetu biztanle erabiltzaile eta potentzialki erabiltzaile direnen beharrei erantzunez. Istripuak kontzentratzen diren puntu eta bide zatiak kentzeko beharrezkoak diren jarduerak burutu
2.2. Mugikortasunaren kudeaketa eta antolaketa		<ul style="list-style-type: none"> Irisgarritasun Plana herritarrei arreta zerbitzuak eskaintzen dizkieten eta jendetza jasotzen duten udal eraikinetara eta gunee desberdinetara aplikagarria da. 	
2.3. Lurraldeko loturak eta irisgarritasuna		<ul style="list-style-type: none"> Mugikortasun sortzaile diren zentro handiek ez dute mugikortasun planik. Garraio publikoari dagokionean, komunikazio urriegia dago Muskizko auzogune periferikoen eta erdigunearen artean.. 	
2.4. Garraio publikoa		<ul style="list-style-type: none"> Muskiz herri arteko autobus sare zabala du eskura. Plan Gaztearen Diagnostikoan asteburuetako gau zerbitzurik ezagatiko kexak jaso ziren. 	
2.5. Oinezkoen eta bizikleten sareen ezaugarriak		<ul style="list-style-type: none"> Urbainagako aldageltokia martxan ipintzeak positiboki eragingo luke, trenaren erabiltzaileei garraio modu horretan jarraitzea ala Metrora igarotzea ahalbidetuko lieke eta. 	
2.6. Bide sarea		<ul style="list-style-type: none"> Oinezkoen ibilbideen sarea nabarmentzekoa da baina alde zaharreko zenbait kale espaloirik gabeak dira edo espaloia edukitzekotan zabalera minimoa dute. 	
2.7. Landa bide sarea		<ul style="list-style-type: none"> Ez dago bizikletazkoentzako ibilbiderik hirigunea egituratuko dutenik edo Muskiz beste udallerriekin konektatuko dutenik.. N-634 errepidearen sarbideetako bolumenak El Crucero-n eta BI-2701 errepidearenak gehiegizkoak dira Muskizko hirigunerako zuzeneko sarbideak baitira. 	
2.8. Aparkalekua			





Azpieremua	Egoera	Diagnostikoko funtsezko alderdiak	Esku hartzeko lehentasun eremuak
2.9. Motorizazioa eta ibilgailuen atala		<ul style="list-style-type: none"> • Trafiko zirkulazioa dentsoa da semaforoz hornitutako El Crucero eta Antonio Trueba ibilbidearen arteko bidegurutzan eta hezkuntza zentroyen inguruetan baita ere ikasleen sarrera eta irteera ordutegietan. 	
2.10. Istripuak		<ul style="list-style-type: none"> • Galtzaraz kanpoko aparkaleku eskaintza erroldatutako guztizko ibilgailu kopuruaren azpitik dago eta zenbait lekutan (Renfeko geltoki ondoan kasu) aparkaleku gutxiegi daudelako kexak daude. 	
2.11. Salgaiak		<ul style="list-style-type: none"> • Trafiko istripuei dagokienean, El Crucero punturik gatazkatsuenetarikoa da eta Santelices-El Pobal bide zatiak berehalako konponbidea behar du. 	
2.12. Bide hezkuntza		<ul style="list-style-type: none"> • Muskizeko 3 ikastetxek Txirringaeskolan Kirol Klubeko bizikletaren erabileran sarrera eta iraunkortasuna programan parte hartu dute. 	




3. BIOANIZTASUNA ETA PAISAIA

Azpi-eremua	Egoera	Diagnostikoko funtsezko alderdiak	Esku hartzeko lehentasun eremuak
3.1. <i>Natura eta paisaia balioak</i>		<ul style="list-style-type: none"> • Inguruko udalerrien artean, hainbeste naturgune aberats eta anitz biltzen duen bakarrenetarikoa da. • Artadi kantauriarren orban txiki barreiatuek irauten dute oraindik. • Muskizen ezaugarria da ibai eta errekez osatutako ur ibilguren sare zabala daukala. 	<p>Udalaren eskumenekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Planeamendu Orokorrean aurreikusita dagoen baso erabileraren mugatzea aplikatu lerro horretatik haratago kokatuta dauden baso sailak ingurumen aldetik beren onera ekarri ahal izateko. • Gune andeatuen ingurumen berreskurapen lanekin aurrera egin eta sustatu. • Sentikorrenak diren udalerriko guneak babestu, batez ere babes berezikoak direnak.. • Udaletik Barbaduneko KBEaren kudeaketa neurrien jarraipena egin. <p>Udalaz gaindiko eskumenekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> • CLH-k okupatzen duen paduraren berreskurapen jarduera hobetu • Barbaduneko KBEaren babes eta lehengoratzte lanekin aurrera egin.
3.2. <i>Sistema naturalen eta paisaien kontserbazio egoera</i>		<ul style="list-style-type: none"> • Balio garrantzitsuak oraindik kontserbatzen dituzten hainbat naturgune daude nahiz eta egun andeatu samartuta egon. • Barbadun ibaia Muskizetik igarotzen den zatiaren atalik handiena biziki andeatuta dago hiri jardueraren ondorioz. Hala eta guztiz ere leku jakinetan haltzadi kantauriarra mantentzen da. 	
3.3. <i>Jardueren eragina eta arriskuak nekazaritzan zein natur ingurunean</i>		<ul style="list-style-type: none"> • Landare espezie inbaditzaileak daude, batzuk natur balio handiko eremuetan kokatuak. • Udalerriko paisaia jatorrian zuenetik oso desberdina da egun. • Barbadungo padurek eta beren inguruek jasaten duten giza presioa etengabea eta bortitza izan da. Garatu diren edo etorkizunari begira aurreikusita dauden jarduera askok aurkakotasun handia sortzen dute zenbait sektore eta talderen aldetik. 	
3.4. <i>Babestutako naturguneak</i>		<ul style="list-style-type: none"> • Abeltzaintza jardueren ingurumen eragina nabarmena da. 	
3.5. <i>Natur ingurunearen antolamendua eta kudeaketa</i>		<ul style="list-style-type: none"> • Barbadun ibaiaren bokalean dauden EAEn oso urriak diren eta mehatxatuta dauden bi ekosistemak (padurak eta itsas ertzeko hareatzak) Europa mailako garrantzizko naturguneen "Natura 2000 Sarearen" baitan babestutako gune izendatu dira. • Gune desberdinen ingurumen berreskurapenaren aldeko esku hartze ugari egin dira. 	





BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMENAREN KALITATEA

4. URA






Azpi-eremua	Egoera	Diagnostikoko funtsezko alderdiak	Esku hartzeko lehentasun eremuak
4.1. Ur horniketa		<ul style="list-style-type: none"> Edateko uraren banaketaren kudeaketarako euskarri digitalean dagoen kartografia erreminta bat dago. Ponpaketa puntuak eta hornikuntza tangak monitorizatuta daude. Ur banaketako hoditeriaren modernizatze ez osoa. Muskizek EAEko II Ingurumen Esparru Programak ezarritako helburua betetzen du, alegia, 2010 urterako zenbatu gabeko bolumenak %25era ez iristea. 	<p>Udalaren eskumenekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> Saneamendu sarea berritu eta bere estaldura udalerrira osora zabaldu. Ur Kontsortzioarenak diren sareetan udalaren jardura mugarritu. Ur kontsortzioari industri jardueren ikuskaritza egin dezala eskatu.
4.2. Edateko ura banatzeko sarea		<ul style="list-style-type: none"> Ur banaketa sarean dauden galerak oso txikiak dira. Hornitutako urek giza kontsumorako uraren kalitateari buruzko osasun irizpideak betetzen dituzte. Banatutako ur bolumenen eta sektorekako kontsumoen erregistro sistematikoa dago. Udal eraikinek kontagailuak dauzkate. 	<p>Udalaz gaindiko eskumenekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> Barbadun ibaiaren ertzak berreskuratu. Barbadunen itsasadarraren egoera ekologikoa hobetu.
4.3. Eskaera eta kontsumoa		<ul style="list-style-type: none"> Etxeetako ur kontsumoa, 2005-2009 aldian zerbait gutxitu dena, Udalsarea 21eko udalerriek duten batez besteko balioaren azpitik mantentzen da. 	
4.4. Saneamendua eta arazketa		<ul style="list-style-type: none"> Udal administrazioan ura aurrezteko zenbait neurri ipini dira martxan. Gaur arte udalerriko berdeguneaK sareko uraz (edateko ura) ureztatzen dira. 	

Azpieremua	Egoera	Diagnostikoko funtsezko alderdiak	Esku hartzeko lehentasun eremuak
4.5. Uraren zikloaren araudia eta kudeaketa		<ul style="list-style-type: none"> • Landa eremuko gunee batzuk ez daude saneamendu sarera lotuta. Kasu guztietan udalaren sarera lotzeko aukera ez da ikuspuntu tekniko bideragarria kasu guztietan. • Hobi septikoak diseinatu eta instalatzeko orduan lizentzia medio zenbait ezaugarri tekniko betetzea eskatuz gero ondoren ez da eskatutakoa noraino betetzen den gainbegiratzen. • Berriki, udalak saneamendu sarearen kartografia digitala garatu du.. 	
4.6. Sentsibilizazioa		<ul style="list-style-type: none"> • Hiri sarea %50ean bananduta dago eta beste %50ean baterakoa da. • Saneamendu sare zaharra berritzen Joan den arren, oraindik badira fibrozementuzko (uralita) hodiak. • Tarifa sistema termino finkoaren eta termino aldakorraren arteko hibridoa da, zeina kontsumoen menpe dagoen. Hornikuntza tasak kontsumitutako ur bolumena zenbatzen du eta saneamendu tasak isuritako ur bolumena hartzen du bere baitan. Hortaz, nolabait ere, aurrezpena eta kontsumo arrazionala sustatzen dira. 	
4.7. Uraren kalitatea		<ul style="list-style-type: none"> • Barbadun-B ur masa ingurumen helburuak ez betetzeko arriskurik ez duen masa da, ez baitu eraginik eta jasotzen duen presio maila txikia baita. • Barbadun-B ur masaren ertzak eraldatuta daude eta zuhaitz estaldura eskasia dute ezkerreko aldean. • Barbadungo itsasadar osoari begirako balorazioa "txarra" da. Masa hau 2015ean Egoera Ona ez erdiesteko arrisku handian dago, eragin frogatua eta presio ez nabarmena jasatearen ondorioz. • Gertaera puntualak izan diren arren, La Arena-ko hondartza bainurako egokia da. 	





5. HONDAKINAK





Azpiemua	Egoera	Diagnostikoko funtsezko alderdiak	Esku hartzeko lehentasun eremuak
5.1. Hiri hondakinak sortzea ¹		<ul style="list-style-type: none"> Muskizko hiri hondakinaren sorkuntza (Kg/bizt./egun) 2009an Udalsarea 21eko udalerrien batez bestekoaren (1,5 kg/bizt./egun) gainetik dago. Aitzitik, bere indizea (1,44 Kg./bizt./egun) EAerako 2012 urteari begira ezarritako helburura hurbiltzen da. 	<p>Udalaren eskumeneoak</p> <ul style="list-style-type: none"> Berreskuragarriak diren zatikien jasotzea handitu. Hondakinaren sorkuntzaren murrizketa eta jatorrian banantzea sustatzeko neurriak (fiskalak eta beste) ezarri.. Udal zerbitzuetan sortutako hondakinaren kudeaketa egokirako sistemak ezarri.
5.2. Gaikako bilketa		<ul style="list-style-type: none"> Zatiki desberdinetarako bilketa zerbitzua kontratatuta dago. Honek jasotako hondakinaren kudeaketa integrala eta beren azken norakoa bermatzen du. Bilketa zerbitzuak nabarmenki hobetu dira denborarekin. Nolanahi ere, udalerrri osoko edukiontziak berrantolatu beharko lirateke eta ezarritako ratioetara egokitu. 	
5.3. Hiri hondakinaren kudeaketa		<ul style="list-style-type: none"> 2007-2010 bitarte gaika jasotako hondakin kopurua (1,44 Kg./biz./egun) handitu bada ere, sortutako hondakin guztiekiko bere portzentajea Udalsarea 21eko batez bestekoaren (%28,3 2007an) azpitik dago. 	
5.4. Hiri hondakinaren tratamendua		<ul style="list-style-type: none"> Muskizko erregistratutako gaikako bilketaren datua EAerako nahiz Bizkairako ezarritako helburuak erdiestetik urrun dago. 2007 eta 2010 bitarte etxeetako olioaren eta ontzien bilketak handitu egin dira. Beiraren bilketaren joera beheranzkoa. 	

¹ Hiri Hondakinak (HH)= Etxeko Hondakinak (EH) + Erakundeek, Merkataritzak eta Industriak sortutako hondakin asimilagarriak (EMIAH) 1999/21/CE zuzentarauarekin bat dator azalpena.





Azpieremua	Egoera	Diagnostikoko funtsezko alderdiak	Esku hartzeko lehentasun eremuak
5.5. Hiri hondakinei buruzko ordenantzak eta zergak		<ul style="list-style-type: none"> • Ehunak, jostailuak eta Hondakin Elektriko eta Elektronikoak irabazi asmorik gabeko Berohi kooperatibara eramango dira, berreskuratutako ehunen bilketa, tratamendu eta komertzializazioa izanik nire jarduera. • Oraindik ez da zatiki organikoaren gaikako bilketa ezarri. • Muskizen Garbigunea dago. 	
5.6. Sentsibilizazioa		<ul style="list-style-type: none"> • Azken buruko deuseztapena, birziklapenaren bidez balioztatu ondoren, jaitsi egin da herritarren sentikortze mailaren handipenaren ondorioz eta baita bilketa zein kudeaketa zerbitzuetan hobekuntzak egitearen ondorioz ere. 	
5.7. Industri eta nekazaritzako hondakinak		<ul style="list-style-type: none"> • Gaur egun tasa fiskalek ez dute hondakinen sorkuntzan murrizketa ez eta jatorrian banatzea bultzatzen. • Udalak hainbat jarduera burutzen ditu hondakinen arloko komunikazio eta sentikortzeari dagokionean, sektore desberdinei zuzenduak.. 	
5.8. Bide garbiketa		<ul style="list-style-type: none"> • Industri jatorriko hondakin arriskutsuen balioztapen maila EAEko helburua erdiestetik oso urrun dago. • Belardiak ongarrizko mindak erabili izanak San Juliango auzotarren aldetik kexak eragin ditu, sortzen dituen usain txarrak direla eta. 	
5.9. Udal zerbitzuen hondakinak		<ul style="list-style-type: none"> • Kale garbiketaren eta hondakin bilketaren zerbitzua antolatzen duen kontratu berrian hobekuntza garrantzitsuak barneratu dira. • Ez dira Muskizko udal zerbitzuetan sortzen diren hondakinak zenbatzen. • Ez dago udal zerbitzuetan sortutako hondakinen kudeaketa egokirako tresnarik. 	




6. ENERGIA

Azpihermua	Egoera	Diagnostikoko funtsezko alderdiak	Esku hartzeko lehentasun eremuak
6.1. Egitura energetikoa		<ul style="list-style-type: none"> • Energi iturrien araberako kontsumoaren egituran, zeinean petrolioak eta gainontzeko erregai fosilek pisu nabarmena duten, energi iturri ez berriztagarri eta kanpotik datozenekiko menpekotasun handia islatzen da. • Gas naturalaren sareak ez du udalerrri osoa estaltzen. • Energia kontsumo guztizkoa bikoiztu egin da 2004-2009 aldian eta batez ere herritarren eskaeraren igoeraren ondorio da. 	<p>Udalaren eskumenekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Iturri berriztagarrietako energien ekoizpen eta erabilera sustatu. • Udal instalazio eta ekipamenduetako energi kontsumoen kontrol eta jarraipena sistematizatu eta kontsumoak arazoizkoak bihurtu. • Kale argiztapeneko energi kontsumoak optimizatu.
6.2. Energia berriztagarrien ekoizpena		<ul style="list-style-type: none"> • 2011ko maiatzean kogenerazio unitate berri bat martxan jartzeak, zeinetik aldi berean argindar energia eta energia termikoa lortzen den, bere burua hornitzeko gaitasuna handitzea ahalbidetu dio Petronorri. • Ordezko energia eta energia berriztagarria ekoitzi eta banatzearekin zerikusia duten hainbat instalazio eta proiektu daude. 	<p>Udalaz gaindiko eskumenekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Sektore publiko eta pribatuari zuzenduriko laguntza eta dirulaguntzekin aurrera egin.
6.3. Tokiko administrazioko energiaren kontsumoa eta kudeaketa		<ul style="list-style-type: none"> • Eguzki azalera termikoa 2005-2010 aldian nabarmenki hazi da. • Udal eraikinen energia azterketa berri bat burutzen ari da energi aurrezpenera zuzenduriko jarduerak definitzeari begira. • Ez da neurririk hartu energiaren erabilera arrazionalaren alde herritarren kontzientziazio eta sentikortzea handitzeari begira • 2011 urtean 2009 urteko datuei dagokien Berotegi Efectuko Gasen (BEG) inbentarioa kalkulatu da. Horrenbestean, udal eraikin eta ekipamenduei dagokien erregai kontsumoaren datuak erregistratu dira eta hauei loturiko CO₂ emisioak kalkulatu dira. 	
6.4. Udal ekipamenduen kontsumoa			

Azpieremua	Egoera	Diagnostikoko funtsezko alderdiak	Esku hartzeko lehentasun eremuak
6.5. Herriko argien kontsumoa		<ul style="list-style-type: none"> • Kanpo argiztapenean energi aurrezpen eta eraginkortasuna lortzera zuzenduriko hainbat eskabide finkatzen dira. • 2008an burutu zen kale argiztapenaren energi eraginkortasunaren azterlana burutu ondoren maniobra koadroak aldatu egin ziren. • 2011 urtean "Muskizko kale argiztapeneko energi eraginkortasunaren zentroa" martxan ipini zen eta behe tentsioko egungo Erregelamenduaren arabera egokitzapena egin zen. Honek udalerriaren energi gastua ezagutzea eta dagozkion aurrezpen neurriak planteatzea ahalbidetzen du. 	
6.6. Udal ibilgailuen kontsumoa		<ul style="list-style-type: none"> • Egun kale argiztapenaren audiotretza burutzen ari da. • Udalak kale argiztapeneko energi kontsumoen kontrola burutuko du bere funtzionamenduari buruzko informazioa modem bidez bidaliko duten hainbat dispositibo instalatzearekin batera. 	
6.7. Energia kudeatzeko araudia		<ul style="list-style-type: none"> • Udaleko ibilgailu flotari dagokion 2009ko erregai kontsumoaren datuak erregistratu dira eta hari loturiko CO2 emisioak kalkulatu dira. • Kontsumoen eta ibilgailuen erosketaren berdearen arrazionalizazio politika ez da Muskizko tokiko administrazioan landu den arlo bat. 	
6.8. Sentsibilizazioa		<ul style="list-style-type: none"> • Ez dago udal mailan energiaren aurrezpena, eraginkortasuna eta energia berriztagarrien ekoizpen sustatzeko tresnarik (ekonomikoak, fiskalak zein kudeaketakoak). • Gutxi dira udalak garatu dituen sentikortze jarduerak energiaren aurrezpen eta arrazoizko erabilerari dagokionean. 	





7. INGURUMENAREN KALITATEA. Atmosfera, akustika eta lurzoruak.

Azpieremua	Egoera	Diagnostikoko funtsezko alderdiak	Esku hartzeko lehentasun eremuak
